

## **ARANTZAZUKO AMA IKASTOLAKO GURASO ELKARTEA – D.B.H.**

### **KUOTEN ETA ORDAINKETEN ARAUDIA**

#### **Guraso Elkartea eta kuotak**

Arantzazuko Ama Ikastolako Guraso Elkartearen helburua da gure seme-alaben hezkuntza proiektuan parte hartzea eta, besteak beste hezkuntza proiektu hori indartzea, osatzea eta baliabideak eskaintzea.

Hori dela eta, Guraso Elkarteko kideek (ikastolan dabilzan haurren gurasoek) diru ekarpenak egiten dituzte hilero, Guraso Elkartek antolatzen eta diruz ordaintzen dituen egitasmo eta zerbitzuak finantzatzeko. Honako kontzeptu edo kuotak daude indarrean:

- Kuota orokorra, haur bakoitzeko 15,00 euro hileko

#### **Finantzatzen edo kudeatzen diren zerbitzu eta jarduerak**

Kuota horiekin zerbitzu hauek kudeatzen edo finantzatzen dira, zerbitzuaren arabera, zati bat edo osorik:

- Eskola orduetako material osagarriak
- Egitasmo bereziak
- Egun bateko eta hainbat eguneko irteerak
- Eskolaz kanpoko jarduerak eta materialak
- Guraso Elkarteko koordinatzailea
- Guraso Elkarteko kudeaketa-gastuak

Azken urteotan hainbat erabaki hartu ditu Guraso Elkartek kuoten eta horiek ordaintzeko moduari buruz. Alabaina, sarri zalantza ugari sortzen dira. Horrenbestez, Guraso Elkarteko Zuzendaritza Batzordeak araudi hau onartu du, kuoten ordainketak, ez ordaintzea eta antzekoak arautzeko.

### **GURASO ELKARTEKO KUOTEN ETA ORDAINKETEN ARAUDIA**

#### **1. Helburua**

Araudi honen helburua da Arantzazuko Ama Ikastolako Guraso Elkarteko bazkideen kuotak eta ordainketak ezarri eta arautzea.

#### **2. Kuotak ordaintzeko betebeharra**

Guraso Elkarteko kideek kuota orokorra ordaintzeko betebeharra dute:

- Kuota orokorra: 15,00 euro hileko eta seme-alaba bakoitzeko

Ondorengo zerbitzuetan parte hartu nahi izanez gero, kuota orokorrak gain, honako kuota hauek ere ordaintzeko betebeharra izango dute:

- Bigarren Hezkuntzako Eskolaz kanpoko ekintzek kuota ezberdina izango da jardueraren arabera.
- Lehen hilabeteen (urrian) baja ematen dutenen kasuan izan ezik, gainontzeko bajen kasuan hiruhilekoa osorik ordaindu beharko da.

### 3. Kuotak berrikustea

Guraso Elkarteko Zuzendaritza Batzordeari dagokio Guraso Elkarteko kuoten kopurua aldatzea eta egokitzea.

### 4. Nola ordaindu

Kuotak helbideratuta kobratuko dira, hurrengo hilaren hasieran. Orotara 10 kuota ordainduko dira, irailetik, ekainera.

### 5. Itzulketak

Banketxeak helbideratutako kuota bat itzultzen badu eta ordaindu gabe geratzen bada, Guraso Elkarteko koordinatzailea guraso horiekin harremanetan jarriko da telefonoz, kuota itzuli egin dela adierazi eta ordainketa lehenbailehen egiteko eskatzeko.

Kuota itzulketa bat dagoen bakoitzeko 1€ gehiago ordaindu beharko da ikasleko, itzulketa honek sortzen dituen gastuak direla eta.

### 6. Kuotak ez ordaintzea

Kuoten ordainketa hiru hilabetearen amaieran (abendua amaieran, Aste Santuan edo ekaina amaieran) eguneratuta ez baldin badago, guraso horiei idatziz jakinaraziko zaie hilabeteko epea dutela ordainketak egiteko.

Horrela egiten ez badute, Guraso Elkarteko bazkide izateari utzi egingo diote eta ezingo dituzte erabili Guraso Elkartek kudeatzen edo finantzatzen dituen zerbitzu eta egitasmoak:

- Ezingo dute eskolaz kanpoko ekintzarik egin
- Ezingo dute haur danborradan parte hartu
- Irteeren (egun bateko nahiz hainbat egunekoak), igeriketa ikastaroen, ingeles materialaren eta antzekoen kostuaren %100 ordaindu beharko dute.

### 7. Kuotak ez ordaintzeko salbuespenak

Gure artean badira, krisialdiaren edo bestelako gertakarien ondorioz, Guraso Elkarteko kuotak (handiak ez izan arren) ordaindu ezin dituzten familiak, estuasun ekonomikoak dituztelako.

Elkartasunean oinarrituta, Guraso Elkartek begi onez ikusten du egoera horretan dauden familien kuotak Guraso Elkartek (beste gurasoen kuoten bidez) ordaintzea.

Honako arau hauek jarraituko dira familia bat kuotak ordaintzetik salbuesteko:

1. Egoera horretan dagoen familiak eskaera egin behar dio Guraso Elkarteari. Eskaera egingo da ikasturtearen hasieran, idatziz, irailaren 15etik urriaren 15era. Eskaera egin beharko da urtero. Araudi honi erantsita dago eskabidea egiteko eredia.
2. Tokian toki honakoak izango dira aurkeztu beharrekoak:
  - a. Martuteneko familiek: Salbuespen eskaeraz gain, gizarte laguntzaileen edo diru laguntzaren bat jasotzen dutenaren ziurtagiria, familia horrek estutasun ekonomiko nabarmenak dituela eta Guraso Elkarteko kuota ordaintzeko zailtasunak dituela adierazten duena.
  - b. Astigarragakoak: Guraso Elkarteari salbuespen eskaera aurkeztuko zaio eta honek udalari aurkeztu beharreko jakinarazpen dokumentu bat helaraziko dio eskatzaileari, non ikasturte osoan zehar Guraso Elkarteari ordaindu beharrekoak zehaztuko diren.

Udala izango da diru laguntza onartuko zaion erabakiko duena, berak finkatutako baremoen arabera.

3. Eskolaz kanpoko ekintzei dagokienez, kuotak ordaintzetik salbuesita geratzen direnek ekintza bat doan egin ahal izango dute. Bi ekintza egitekotan, biak ordaindu beharko dituzte.
4. Kuotak ez ordaintzeko eskaerak Guraso Elkarteko Zuzendaritza Batzordeak aztertu eta erabakiko ditu.

## **8. Bekak**

Salbuespen eskaera eginda duten familiek Hezkuntzatik jasotzen dituzten diru laguntzak (materialerako bekak etab.) Guraso Elkartera bideratuko dituzte, bertan sortzen diren gastuak konpentsatzeko asmoz, diru laguntza honen kantitatea edozein izanik ere.

## **9. Guraso Elkartean sartzea**

Guraso elkartetik kanpo egon den ikasle batek guraso elkartean sartu nahiko balu aurreko ikasturte osoari dagokiona ordaindu beharko luke, hau da 150€.

## **10. Datuen tratamendua**

Guraso Elkarteko Zuzendaritza Batzordeak ordainketa, itzulketa eta salbuespen eskarien inguruko datu pertsonalak konfidentzialtasun osoz erabiliko ditu.

## ESKABIDEA GURASO ELKARTEARI

### ESKATZAILEA

Gurasoen edo tutorearen izen-abizenak	
NAN zenbakiak	
Helbidea	
Telefona	
Seme-alaben izen-abizenak	
Ikasturtea	

### ESKAERA

Idatzi honen bidez, Arantzazuko Ama Ikastolako Guraso Elkarteari honako eskaera egiten diot 2015-2016 ikasturteari dagokionez:

Kuota orokorra ordaintzetik salbuesteko  
Eskolaz kanpoko ekintzen kuota ordaintzetik salbuesteko

Eskaera honekin batera aurkezten dut:

Diru laguntzaren bat jasotzen denaren ziurtagiria  
Gizarte laguntzaileen ziurtagiria  
Bestelakoak: .....

Data eta sinadura

Eskabide hau sinatzearekin baimena ematen diot Arantzazuko Ama Ikastolako Guraso Elkarteari eskabidean agertzen diren datu pertsonalak erabiltzeko, betiere eskabidea bideratzeko egin behar diren lanak egiteko.